

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Garrantzitsua da bezeroekin ze harreman mota edukiko duzun jakitea. Egia da hainbat motatako harremanak daudela.

Gure kasuan, gure baserri etxera etortzen diren bezeroekin (familia , haurrak, adin nagusiak, edo beste edozein pertsona....) beraiekin harremana zuzena eta hurbila edukiko dugu, hau da, pertsonala. Adibidez : beraiekin hitz egin , hurrekin jolastu , parte hartu ekintzetan , ondo pasatzea.....



Berriro azpimarratu beharra dugu bezeroak oso garrantzitsuak direla. Guk bezeroari hainbat ekintza desberdin eskainiko dizkiogu (tailerrak, eskulanak, ortu bat , ibilbideak egitea, animaliekin egotea....). Gauza hauek eskainiko ditugu beraiek egunerokotasunetik deskonektatzeko eta baserri etxeko naturarekin kontaktuan jartzeko.

Ekintza hauekin eta gure harreman hurbiltasunarekin, bezeroak mantentzea eta beste bezero batzuk etortzea lortzea eraginkorra izan daitekeela uste dugu. Bezeroak erakartzeko bi modu daudela pentsatu ditugu. Alde batetik, jendea gustora badator eta ondo pasatzen badute beste pertsona batzuei esango diete, modu oso ona izango litzateke bezero gehiago erakartzeko.. Beste aldetik, orri bat emango zaie baserri etxearen argazkiarekin eta bertan idatzita egongo da ze ekintza edo zerbitzu eskaintzen ditugun, zertarako eta ze landu daiteke ekintza horiekin.